

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILLOPE

## KAOSAREN AURREAN, ELKARTASUN AHOZAPIAK

279

2020ko apirila

TOKIKOM



Jarrai ezazu  
Mailope Aldizkaria  
Facebook orrian!

## UITZI: LINEA ELEKTRIKO BERRIRIK EZ! BADIRA BESTE ALTERNATIBAK

Iberdrolak linea berri bat egin nahi du Leitza eta Lekunberri artean, Uitz alderik alde zeharkatuz. Beste behin ere, proiektu hau eginen da herritarrei informazioa eman gabe, herritarren iritzia kontuan hartu gabe eta lurren jabeek azken unera arte deus jakin gabe. Zoritarrez, honetan ere ardura dute Larraungo eta Lekunberriko udal ordezkariak, ez baitziren gai izan horren berri emateko duela bi urte, proiektua aurkeztu zenean.

Zein ondorio izanen ditu proiektu honek?

1) Uitziko paisaiaren balioa hondatuko du, hala nola Plazaola Bide Berdearena (gain gainetik pasako baitzaio).

2) Kalitate handiko basoak urratuko ditu (Arrubiko pagadia, batik bat, baina baita ameztiak ere). Hau beziki larria da, krisi klimatikoa dela eta oihanak gero eta beharrezkoagoak baititugu tenperaturen gorakadari aurre egiteko.

3) Arbolak botatzearekin batera, espezie batzuen egoera arriskuan jarriko da (esate baterako, Pirinioetako muturluzea edo okil gibel-nabarra).

4) Makinen dardarizoez Errotazarreko zubi zaharrari kalte egin diezaiokete (ikusgarria da, Uitziko estaziotik beharaxeago).

Arrazoi ugari dugu Iberdrolaren proiektuari kontra egiteko. Eta askoz gehiago dira kontuan hartzen badugu beste alternatiba batzuk, Kalaxkak aurkeztuak, bazterrean geratu direla. Zergatik ez ekarri elektrizitatea gaur egun gutxi erabilitako eta osatu gabe diren beste azpiegituretatik? Edo, Nafarroako Gobernuaren Plan Energetikoan jasotzen den bezala, zergatik ez aprobetxatu Lekunberriko poligonoko enpresen teilatuak, eguzki plakak jarri eta dependentzia energetikoa murrizteko? Izan ere, azken buruan, Lekunberriko poligonoko enpresak dira linea berri honen sustatzaile eta onuradun bakarrak.

Larraunen, ingurumenaren aurkako erasoak pilatzen ari dira: Madoztik ekarri nahi duten gasbidea, Aldazko harrobia, Lekunberriko poligonoaren zabalkundea lursail asko hutsik badaude ere, Plazaolako zabortegia, lur

emankorren galera, basoen erabilera okerra... Hauek guztiek zer pentsatua eman beharko ligukete.

Bukatzeko, animatzen zaituztegu heldu den maiztean Uitzin antolatuko dugun mendi ibilaldi gidatuan parte hartzera.

UTZIGUZUE GOZATZEN UITZIKO BASOAZ  
GOITENTSIOKO LINEARIK EZ

Kalaxka Elkartea (kalaxka@gmail.com)

## ALDAZKO HARROBIARI BURUZKO MOZIOA

Larraungo Udalak 2020ko otsailaren 25ean honako akordioak onets daitezzen proposatu zuten:

1- Larraungo Udalak arbuizaten du Aldazko lurretan, Urdula izenez ezagutzen den parajea, kokatutako harrobia ustiatzeko proiektua, Horgobisa enpresak gidatzen duena, eta Ingurumeneko Departamentuari eskatzen diogu espedientea iraungita dagoela dioen adierazpena helaraz dezan, departamentu horrek eskatutako dokumentazioa ez baita ezarritako epearen barruan, ez moduan entregatu.

2-NGri eskatzen diogu Larraungo Udala, proiektuak ukitutako entitate eta sektoreak eta alegazioak aurkeztu zituzten guztiak jakinaren gainean eduki ditzan uneoro.

3-NGri eskatzen diogu eremu honen aberastasun eta balio paisajistikoa eta kontserbazioa direla eta ingurumen inpaktua adierazteko aurkez daitekeen proiektu oro beti bide arruntetik egin dadin.

4-NGri eskatzen diogu Horgobisa enpresari exijitu diezaien bere garaian enpresa horrek berak burutu zituen hondakinak jaso eta uzteko eginkizunek kaltetu zuten eremua berreskuratzeko behin eta berriro egin zaizkion mandatatu instituzionalak bete ditzan.

Larraungo Udala.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

Kubota  
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO




**BIDE GOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
info@bidegoxo.com





04 ESKOLATIK MAILOPERA: Ibarberri, Patxi Zubizarretaren bisita.

06 ELKARRIZKETA: *Udara Larraunen, Udara Lekunberrin.*

09 KUXKUXEAN: Apirileko zorion agurrak.

11 PRINTZA

12 LUZE ETA ZABAL

14 KORONABIRUSA

19 KULTURA

22 ERREPORTAJEA: Lehen sektorea.

24 HITZ ASPERTUAN

25 EMOZIOEN MUNDUAN

26 KIROLA

27 PLAZATIK PLAZARA: Euskaraldia.

30 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.  
L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Ane Barberia, Battolo Tolosa, Andoni Tolosa, Oihane Soroa, Mirentxu Eskamendi, Ana Anguera, Mikel Azpiroz, Ander Prados eta Aiora Irastortza.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

**LABRIT**  
MULTIMEDIA

#MailoperekinEtxean



Kaixo lagunak!

Ibarberri eskolako 3. maila B taldeko ikasleak gara. Ikastetxean idazleen topaketa egiteko aukera genuenez, Patxi Zubizarreta idazlearekin, martxoaren 9an, elkartzeko aukera izan genuen. Izan ere, 2. hiruileko honetan, tertulia saioetan, berak idatzitako liburueta bat irakurtzen eta lantzen egon baika: *Pantaleon Badoa*. Badakizue Pantaleon nor den? Elurrezko panpina bat, kolore beroak (basamortua) ezagutu nahi dituen.

eskolatik  
mailopera

Eguna iritsi zenean, idazlearekin gure eskolako txoko berrian, *Ibarberri-ketan* aritzeko, elkartu ginen. Bertan, galdera desberdinak egiteko aukera izan genuen, baita bere pasarte desberdinak entzuteko ere. Gure galderatako bat hau izan zen: ia *Pantaleon Badoa* liburuak jarraipenik ba ote duen. Liburuak irakurtzeaz bukatu genuenean jarraitzeko gogoarekin geratu baikin. Baietz esan zigun!! "*Pantaleon lagunekin doa*" deitzen dela. Oso pozik jarri ginen!

Irrikitzen gaude liburu hau irakurtzeko! Pantaleonen abenturak nola bukatzen diren ezagutzeko!

Bestalde, asko gustatu zitzaigun ipuinak sortzeko kontatu zigun sekretua. Hau azaltzeko, *Pantaleon Badoa* liburuak idazteko zertan oinarritu

## Patxi Zubizarreta idazlearen bisita

zen azaldu zigun. Jakin nahi duzue zein den sekretua? Ba... hiru **P**: **P**ertsonaia bat (Pantaleon), **a**metz bat, hau da, **P**asio bat (beroa, koloreak ezagutzea) eta **a**zkenik, **P**aisai bat (Ipar poloa). Beraz, badakizue zer egin behar duzuen ipuin bat sortu nahi baduzue!

Baita ere, aipatzen zigun, haurrentzako *Garalar-Maralar* bilduma gauzatu duela. Bilduma hau, Aralarri buruzko lau liburuk osatzen dute eta laster argitaratuko dituztela esan zigun. Hain hurbil dugun naturgune preziatu hau ezagutzea oso interesgarria zela iruditzen baitzitzaion. Horregatik, mitologia, historia eta istorioak, kanpoko eta barneko geografia, artzaintza... gaietan zentratu da liburu hauek idazteko. Liburu horietatik "*Aiert eta herensugea*" da gure inguruan oinarritzen den liburua: Mendukilo, San Miguel, Iribas... azaltzen baitira.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu, asko gozatu genuela egun horretan Patxiarekin aurrez aurre izan genuen elkarriketan! Esperientzia polita izan da guztiontzat!!!!

Beste bat arte!!

3.B mailako ikasleak

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



## BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)




## BARDOAK ATZERATUTA

Martxoaren 14an Goizuetan eta Jauntsaratsen egitekoak ziren Bardoetako finalurrekoak bertan behera gelditu ziren Koronabirusaren hedapena murrizteko neurri gisa. Martxoaren 28an Lizarran egitekoa zen finala ere atzeratzea erabaki du Nafarroako Bertsozale Elkarteak.



## LANAK AMAITZEAR

Udazkenean hainbat berritze lan abiatu zituen Beteluko Udalak herrian. Ipintzako bideko errepi-dea berritzeko lanak amaitzen ari dira. 600 metroko bide zatia berritu da, zubi bat eraiki da eta kanadiar pasabidea jarri da, besteak beste.



## EHME EKAINAREN 6AN

EHMEko antolatzaileek, oraingoz behintzat, lasterketaren datari eutsi diote. Ekainaren 6an izanen da Euskal Herria Mendi Erronkaren zortzigarren lasterketa. Horregatik, parte-hartzaileak etxean kirola egiten jarraitzera animatu dituzte.

# bertso berriak Mailoperi jarriak: Igor Mitxaus (Lekunberri)

*Koronabirusakin  
a ze iskanbila,  
geldiarazi egin du  
munduko gurpila,  
kalean sumatzen da  
orain txori pila,  
hartu dezagun beta  
neska ta mutila,  
etxean egotea  
ez baita hain zaila.*

*Baina egoera ez da  
denontzat berdina:  
etxean gelditzeak  
ematen du mina,  
etxerik ez duenak  
gordetzeko grina...  
Afrikar lurraldean  
jaio izan bagina?  
gutxien dutenentzat  
dena da ezina.*

Doinua: Itziarren semea.

### Hurrengoantzako puntua:

Birus txiki bat al da  
gu baino gehiago.

### Oinak:

Gogorra, hilezkorra,  
zorra, zaborra, altxorra



## *Uda honetan hiru eta hamasei urte artekoentzako jarduerak eskainiko dira Larraunen astelehenetik ostiralera*

*lazko udan ludoteka zerbitzua eskaini zen Lekunberrin Ane Barberia eta Miriam Hernandok bultzatuta. Izandako arrakastaren ondotik, aurtun eskaintza zabalduko da, "Udara Larraunen, Udara Lekunberrin". Hiru eta hamasei urte bitarteko ikasleek ludoteka, kirola nahiz gazte ekintzetan izen emateko aukera izanen dute.*

### **Joan den urteko ludotekari jarraipena emanen diozue aurtun...**

**Ane:** Bai. laz ludotekaren ideia proposatu genuen Ibarberriren bitartez. Gurasoei emailaz bidali genien, jendea animatuko zen jakiteko. Eta oso harrera ona izan zuen. Berrogei haurrek eman zuten izena eta aurrera egin genuen. Ekaineko azken astean uztaila osoan zehar eskaini zen zerbitzua.

### **Nola jarri zenuten martxan?**

**Ane:** Jendearen interesa ikusita, Lekunberriko Udalera eta Inma Etxarriengana jo genuen eta beraiek lagundu ziguten begiraleak aurkitzen eta kontratuak bideratzen.

**Miriam:** Hodei Buldain eta Aiora

*"Aurtun ekaineko azken astetik abuztura arte eskainiko da"*

Irastortza ibili ziren begirale lanetan. Eskolako goizeko ordutegia mantendu nahi izan genuen, batez ere lan egiten duten gurasoengatik. Beraz, 08:00etatik 09:00etara sarrera librearen eta ondoren, 09:00etatik 13:00era ludoteka.

**Ane:** Lekunberriko udalean Ibarberriko patioa eta kobazuloa erabiltzeko baimena eskatu genuen eta jarduera gehienak han egin zituzten. Gurasoek umeak bertan utzi eta hartzen zituzten.

### **Udan Kirol Mankomunitateak urteak daramatza kirol jarduerak antolatzen, baina hala ere hutsunea sumatzen zenuten?**

**Ane:** Bai. Sei eta hamabi urte bitarte inguruko haurrei zuzendutako kirol eskaintza zen eta ikusten genuen agian egonen zirela adin tarte horretakoak nahiz Haur Hezkuntzakoak ziren haurrek horretara animatzen ez ziren arren, ludoteka edo bestelako tailerrak egitea gustatuko litzaiekeenak. laz ez genuen adin tarte zabaldu, ez genuelako kirol jardueren eskaintza estali nahi. Horregatik hiru eta zortzi urte bitartekoei eskaini genien.

### **Aurtun ordea dena proiektu bakarrean bateratu duzue...**

**Ane:** Aurtun Lekunberriko nahiz Larraungo udalekin harremanetan jarri ginen proiektu bakarra osatzeko. Dena bateratuz, familiek aukera guztiak izan zituzten. Bai udalen aldetik eta baita Euskara Zerbitzuaren aldetik



Miriam Hernando eta Ane Barberia, Udara Larraunen, Udara Lekunberrin ekimeneko sustatzaileak. Arg: utzitakoa



oso harrena ona izan zuen gure proposamenak eta asko lagundu digute. Gainera, udalek euren gain hartu dute kudeaketa eta diru-laguntzen eskaera.

### **Zein izanen da aurtengo eskaintza?**

**Miriam:** Hiru eta hamabi urte artekoei Ludoteka eskainiko zaie. Sei eta hamalau urte bitartekoentzako Kirol jarduerak ere izanen dira eta hamabi eta hamasei urte arteko gaztetxoentzat Gazte ekintzak antolatu ditugu.

**Ane:** Gainera, aurten ekaineko azken astetik hasi eta abuztura arte eskainiko da zerbitzua. Nahiz eta izen-emateak asteka antolatu diren. Horrela, norberak erabakiko du zenbat astez parte hartu nahi duen. Kirol jarduerak eta Ludoteka tartekatzeko aukera emanez.

### **Begiraleen esku uzten duzue jardueren antolaketa?**

**Ane:** Bai. Adibidez, ludotekaren kasuan iazkoaren ildotik joanen da, baina begirale gehiago beharko ditugu aurten.

### **Begiraleak kontratatzeke lan poltsa ireki duzue...**

**Ane:** Bai. Euskara Zerbitzuaren bitartez lan poltsa bat egin nahiko genuke. Apirilean lan poltsa hori osatuko da eta uda hasi aurretik kontratatuko diren begirale horiekin plangintza bat antolatzen saiatuko gara.

### **Gaztetxoei zuzendutako Gazte ekintzak zertan oinarrituko dira?**

**Miriam:** Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuarekin jarri gara harremanetan eta Hodei Lizarraga Prebentzio teknikariak zuzenduko ditu saio horiek. Sexualitatea, zineforuma, sukaldaritza, argazkilaritza... alor ezberdineko jarduerak egingen dituzte. Saio horiek ez dira egunero egingen. Astean bi egitea da asmoa.



Iaz, Hodei Buldain eta Aiora Irastortza aritu ziren begirale lanetan. Arg: Aiora Irastortza.



Hainbat ateraldi ere egin zituzten Iaz Ludotekan. Arg: Aiora Irastortza.

### **Noiz irekiko duzue izen emateko epea?**

**Ane:** Maiatzean irekiko dugu! Iaz oso balorazio ona egin genuen. Ikusi da beharra badagoela. Iaz zenbait haur kanpoan ere gelditu ziren. Aurten eskaintako programarekin aukera gehiago izanen dira.



# “Eskolako patioan igerileku txikiak jarri genituen”

Aiora Irastortza iaz begirale lanetan aritu zen udako Ludotekan.

## Zer moduzko esperientzia izan zen iazkoa?

Hasieran aurrez ariketak eta jolasak prestatu genituen, baina ondoren egunaren arabera eta umeen eskariak kontuan hartuta moldatzen joan ginen. Margolanak, eskulanak, jolasak... Eskolako patioan Guraso Elkarateak utzitako igerileku txikiak jarri genituen... Eta zenbait egunetan kanpora ere irteten ginen, parkera, erreka, bizikletan ibiltzera... Umeak oso gustura ibili ziren.



### LUDOTEKA

- 3 -12 urte (HH3 – 6. Maila)
- Astelehenetik ostiralera
- 8:00 - 9:00 sarrera
- 9:00 - 13:00 ludoteka
- 35 euro aste bakoitza

### KIROLA

- 6 -14 urte (1.maila – DBH 2)
- Astelehenetik ostiralera
- 10:00 -13:00 kirol jarduerak
- 30 euro aste bakoitza

### GAZTE EKINTZAK

- 12 -16 urte (DBH 1 – DBH 4)
- Astearte eta ostegunetan
- Ordu-tegiak ekintzen arabera
- Ekintzaren arabera ordainduko da.

datak

- Ekainak 22 -26
- Ekainak 29 - Uztailak 3
- Uztailak 6 -10
- Uztailak 13 -17
- Uztailak 20 - 24
- Uztailak 27 - 31
- Abuztuak 3 - 7
- Abuztuak 10 - 14
- Abuztuak 17 - 21

- Ekainak 29 - Uztailak 3
- Uztailak 6 -10
- Uztailak 13 -17
- Uztailak 20 - 24
- Abuztuak 3 - 7
- Abuztuak 10 - 14
- Abuztuak 17 - 21

- Ekainak 29 - Uztailak 3
- Uztailak 6 - 10
- Uztailak 13 - 17
- Uztailak 20 - 24
- Abuztuak 3 -7
- Abuztuak 10 -14
- Abuztuak 17-21

UDARRA *Larraunen  
Lekunberrin*





**Maren Elordi Ilarregi**  
 Apirilaren 10ean, 5 urte.  
*Zorionak sorgintxo!! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu pottolo eta besarkada handi bat, asko maite zaituen familia guztiaren partez.*



**Conchi Liciaga Zatarain**  
 Apirilaren 30ean, 73 urte.  
**ZORIONAK amona! Gustora joango gara berriro elkarrekin ospatzera.**  
 Alain, Jone, Jakes eta Arturo.



**Xabat eta Hodei Arregi Estanga**  
 Apirilaren 4ean eta 24ean, 3 eta 6 urte.  
*Zorionak bikote! Urtebetetze egun zoragarria izan dezazuela!! Asko matte zaituztegu. Muxuak etxeko guztion partez.*

**Maren Michaus Landa**  
 Apirilaren 12an, 2 urte.  
*Zorionak ttikitxo! Segi orain bezain irrifartsu. Muxu handi bat zure famili guztiaren partez!*



**Elaia Iriarte Olano**  
 Apirilaren 20an, 3 urte.  
*Zorionak etxeko abeslariari!! Segi horrela, guztioi irrifareaa ateraz zure kantuekin. Muxu potolo bat Enaitz, attitxo eta amatxoren partez.*

**Amaia Sestorain Anguera eta Asier Sestorain**  
 Apirilaren 24an, 6 urte beteko ditu Amaiak eta 34 urte Asierrek.  
*Zorionak gure etxeko printzesitarentzat! Oso ongi pasa zure urtebetetze egunean. Eta zorionak zuri ere, aitatxo! Muxu handi bat bioi Nerea eta amaren partez.*



**Egoitz Oreja Altuna**  
 Apirilaren 5ean, 11 urte.  
*Zorionak txapeldun, segi beti bezain bizkor eta alai urte askoan!! Ongi-ongi pasa zure egune, etxean sartuta bada ere!!!! Aupa pottoko!! Muxu haundi bat etxeko guztin partez!*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
 Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**M. Angeles Urrizalki**

**iragarkiak, berriak, eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala**

948513056  
 699179437

**Atabal**  
 okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
 harategia

**BERTAKO HARAGIA**

Txistorra, txorizoa, salteixak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7  
 31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88  
[maiteharategia@hotmail.com](mailto:maiteharategia@hotmail.com)

## Gaixotasun guztientzako botika



●● Andrea Etxarri

Ez naiz Koronabirusaren gaixotasunaz arituko, baizik eta askoz kalte handiagoak sortzen ari diren eta sortuko dituzten bi gaixotasunez.

Koronabirusaren iritsierak gizarte bezala dugun egoera eta jokabideak azaleratu ditu. Gaixotasuna hartzen dutenen artean beste patologiaren bat izateak duen arriskua igotzen duen bezalaxe, paniko egoeran indibidualismoak eta ergelkeriak ere gizartearen baloreak eta gizartea bera suntsitzeko arriskua areagotzen dute. Hau agerian utzi duten adibide asko ditugu, argiena hainbat supermerkatutan egon diren jende pilaketak. Beste inorengan pentsatu gabe, janaria modu neurrigabean hartzen eta, horrek euren burua itsututa, ekidin behar den hori egiten. Jende askorekin leku berean pilatzen.

Ez da egun gutxitan konpon litekeen egoera, baina uste dut badaudela egoera hau beste modu batean hartzea lagunduko luketen erabakiak. Lehenengoa, informazio fidagarria eta baliagarria. Dakitenek arduraz hitz egin dezatela, eta ez beste inork. Beldurra sartu beharrean, hartuko diren neurrien helburua eta datuak emanek eta gizartearen inplikazioa bilatuz. Seriotasunez baina alarmismoa ekidinez. Zenbait pertsonekin beldurra da biderik azkarrena, baina horrek ez lituzke hartuko diren neurri guztiak baldintzatu behar. Bigarrena, duen dimentsioa ematea eta gizarteak duen arazo bakarria balitz bezala ez egitea. Zenbat aldiz entzun izan dugun "Ezin dut tabernara afaltzera joan, baina lanera joan beharra dut", "Espero dut honen ondoren lan egunak luzatu behar ez izatea", etab. Zenbat kostatzen zaigun, momentu batez bada ere, gure desioei uko egitea gizartearen mesedetan. Haurren moduan, "jolasten ez badut, ez dut lanik egingo".

Diruaz erosten ez den botika, baina guztiok behariko genukeena: ezagutza eta ardura. Behin irakurri nuen esaldi batek esaten zuen bezala: "Mundua pertsona onez bete dago, aurkitzen ez badituzu, izan zaitez zu horietako bat". Gehituko zara?



●● Pello Azpiroz

Koronabirusak guztiz baldintzatzen du gure bizitza egun hauetan, gutxi espero zuten horrelako dimentsioa hartuko zuenik duela hilabete. Zuk diozun bezala, gaixotasun honek, jokabide eta egoera jakin batzuk azaleratu ditu. Nire ustez, pertsonen alderdirik txarrena eta onena azaleratzen da egoera hauetan. Zorionez, ez dira soilik pertsona batzuen jokabide okerrenak ikusten eta nagusitzen. Etxean gelditzeko agindua eman zutenetik, mota desberdineko elkartasun eta lankidetzak adibide ugari ikusi ditugu sareetan. Horren adibide garbiak dira berehalaz zenbait herritan sortu diren elkartasun sareak, egoera honi kolektibotik soluzioa eman nahi diotenak. Kooperazio eta elkarlan egoera ugari eman dira egun hauetan zehar. Hunkigarria eta txalotzekoa da erizainak, garbitzaileak, medikuak, saltzaileak, banatzaileak... egiten ari diren lana, mi-resgarria benetan.

Sortu den alarmismoa eta psikosia informazio gardentasun faltaren, prebentzio faltaren eta komunikabideetan gaiari eman zaion trataera desegokiaren ondorioa badela ere uste dut; ez soilik norbanakoen. Noski pertsona batzuen jokabideak arriskutsuak izan dira denon osasunerako eta zoritxarrez nahi baino gehiagotan gertatu da hori. Egia da ere, agintarien kudeaketa berandu etorri dela eta erabaki desegoki asko hartu dituztela, adibidez: etxeratzeko agindua eman bai, baina langileak lanera joatera behartzea, lan horietako asko momentu honetan beharrezkoak ez direnean. Desberdintasun handiak daude herrialde batzuek (dagokion dimentsioa emanek eta azkar esku hartuz) eta besteek arazo honi aurre egiteko moduaren artean, emaitzak begi-bistakoak dira.

Irtenbidea, zuk diozun bezala, kontzientziario aldaketa egitetik etorriko da; hau da, norberaren egoera eta beharrik asetzetik, kolektiboarentzako onena bilatzera. Nik argi daukat soluzioa kolektibotik etorri behar dela.

Animo denoi, denon artean egoera honi buelta emango diogu. Zaindu!!!





# Daukagunari erantzun, datorrena aurreikusi

## Emakume langileen askapena guztion ardura

Martxoaren 8aren harira (Emakume Langileen Nazioarteko Eguna), jardunaldiak antolatu genituen Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladarekin batera, loturik gaituen errealitate hau ulertu eta egoera gainditzea ahalbidetuko digun jarduna gauzatzera bidean.

FoxFire film proiektioarekin hasi ginen Printzan. Bigarren hitzordua Irurtzongo Kultur Etxean izan genuen. Bertan, Genero problematikaren gaindipenerako zenbait apunte deituriko hitzaldiarekin M8aren jatorria lantzeaz gain, auzi honen aurrean antolakuntzaren beharra azpimarratu eta egoera iraultzeko zenbait gako eta ondorio elkarbanatu genituen.

Koronabirusaren egoeraren aurrean azken bi saioak, harremanen inguruko tailerra eta hitzaldiaren bigarren atala, bertan behera gelditu dira momentuz.

## Koronabirusaren ajea eta antolakuntzaren beharra

Generoaren auziari lotuta helduko diogu birusaren gaiari. Berrogeialdiaren lehenengo astean jada erail zuen emakume bat bere semeak Sorluzen eta salatu zuten eraso bat Arrasaten. Gizonezkoen bortizkeria jasan beharko dute emakume asko etxetik atera ezinda.

Etxetik ez ateratzeko agindua ezarrita dago idazten ari garen egun hauetan. Ateratzekotan, bakarrik, erosketak egitera edo lanera. Hori da hori kapitalismoaren aurpegi bi-



luzia: norbanakoa isolatua, kontsumo ahalik eta handiena eta ekoizpena "ezin da gelditu!".

Oraingoan, inoiz baino ageriago geratu da ze logikaren menpe bizi garen: aberastasunaren metaketa ezin da gelditu! Enpresak ezin dira geratu! (Obeditzen ez duenari, isuna!) Bitartean, osasun neurriak bete gabe langileak lanean, bakarrik bizi diren adinekoak, umeen zaintza eta lana kudeatzeko zailtasunak, presoak babesgabe, birusaren arrisku eta egoera errearen informazio falta, gaixotasun proba egiteko ezintasuna... Eta kapitalismoak gehien prekarizatutako eta pobretutako osasun langile, etxeko langile, zahar etxeetako langile, banatzaile, garbitzaile eta dendetako langileen esku dago gure bizitza. Hori marka!

Berrogeialdiarekin batera beharrak eta horiei erantzuteko Elkartasun Sareak sortu dira. Honekin lotuta, bi ideia azpimarratzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, arrisku

zein aukerez kontziente izateko: batetik, langileen ongizatea bermatzeko ardura duen eta ezintasuna erakusten duen Estatuari, egoera kontrolatuta mantentzen eta irauten lagun diezaioketela Sare hauek; bestetik, langileen ongizatea bermatzeko aukera bakarria antolakuntza dela erakutsi dela berriro ere.

Zentzu horretan, datozen garai zailen aurrean elkartasuna eta auto-antolakuntza beharrezko izango ditugu, kaleratzeak, ERTE/EREak, lan-erreformak, etxebizitza arazoak, zerbitzu publikoen murrizketak... gelditzeko eta elkar babesteko, morroi gaituen errealitate hau errotik aldatzea ipar.

## Baratza

Udaberria iristearekin batera, ilusioz ekin diogu baratzaire ere lurrarekiko harremanean sakondu eta ikasteko abagunea probestuz. Parte hartzera gonbidatuak zaudete.

ZURE ARGI IZPIAK OSATUKO DU

PRINTZA



# Gizonek menstruatuko balute...

Eta zer gertatuko litzateke, bat-batean, emakumeek beharrean, gizonek hilekoa edukiko balute? Honakoa galdetu zion bere buruari Gloria Steinem kazetari estatubatuarra 1978an. Berrogeita bi urte geroago testua berreskuratuko dugu eta deus gutxi aldatu dela ikusiko dugu. Arazoa ez da menstruazioa, gizarte honetan menstruatzen dugunok baizik.

Horixe dakarkizuet gaur. Ongi etorri, pare bat hilabeteren ondoren, txoko gorrira.

"Gizonek hilekoa edukiko balute harrotasunez hitz eginen lukete horri buruz. Odoljariorren lehenbiziko eguna maskulinitatearen sinbolo goren gisa ospatuko lukete.

Kongresuak diru-laguntzak ematen lizkioke Dismenorrearen Institutu Nazionalari, hilekoak sortzen dituen molestiei aurre egiteko.

Militar, eskuineko politikariak eta fundamentalista erlijiosoak menstruazioaz mintzatuko lirateke gizontasunaren gailur gisa. "Armadan sartzeko zure odola eman behar duzu, beste batzuen hartu ahal izateko". "Emakumeak kapazak al dira agresiboak izateko Martek gidatzen duen ziklorik gabe?" "Gure bekatuengatik odola emateko gai al dira?" "Hileroko odoljariorik gabe, emakumeak ez daude garbi"...

"Ba nik hiru konpresa erabili behar ditut!" azpimarratuko lukete harro. Telebistak programa bereziak eskainiko lizkioke.

Hilekoarekin larrua jotzea atsegina dela esa-



nen ligukete. Lesbianak, bestetik, ez dira benetako gizon menstruatzaile batekin topatu eta horrexegatik dira homosexualak.

Intelektualek argumentu moralak erabiliko lituzkete: emakume batek ez du behar bezala denboraren, espazioaren, matematikaren eta abarren logika ulertuko ez badu ilargiaren eta planeten ziklo naturala beragan bizitzen. Filosofian edo erlijioan, esaterako, zer egin dezakete emakumeek ezin badute unibertsoaren erritmoa sentitu? Ez badute, sinbolikoki, heriotza eta berpizkundea bizi?

Feministek teoria anitz landuko lituzkete. Gizonek agresibitatearen ideia faltsua alde batera uzteko aldarriak eginen lituzkete eta emakumeek menstruatzaile ez izatearen inbidiari aurre egin behar diotela.

Feminista erradikalek errepresio oro menstruaziorik ez dutenenganako errepresioaren patroia jarraitzen duela esanen lukete. Feminista kulturalak odolik gabeko imajinagintza sortuko lukete artean eta kulturaren. Feminista sozialistek, bere aldetik, kapitalismoa kritikatuko lukete menstruazio-odola monopolizatze-ko aukera ematen lukeelako.

Beno, hori utziko bagenie".

Testu osoa Interneten topatuko duzue ingelesez eta gazteleraz. Gehiegizkoa iruditzen zaizue? Pentsatu al duzue inoiz? Erreparatu al diozue, duela bi ale idatzi nuen testua gogoratuta –bilatu etxean duzuen Mailope zaharren txokoan irakurri ez baduzue-, nola bizi dugun menstruazioa gure gizartean?



# Berrogeialditik

Kaixo irakurle. Asteazkena da gaur, 2020ko martxoaren 18a. Aski eza gutzen duzun berrogeialdiaren hiru-laugarren eguna da hau. Suposatzen dut honezkero krisi honi buruz irakurtzeaz nekatu zarela, ni behintzat bai. Mailoperako idatzi behar dut ordea, bizitzak aurrera jarraituko duenaren esperantza dugulako eta, gai hau da momentuan nigan indarra duena.

Noski, badakigu sentipenak ez direla "egia" edo "gezurra", ez dela zerbait objektiboa. Nire esperientziaren arabera, radar antzeko bat dira nire osotasuna nola dagoen jakiteko, pentsamendutan edo jokaeratan zeozer aldatu behar ote dudan edo ez, norabide onean noan... Azken aldiko lana izaten ari da niretzat emozioei leku egin eta hauek "irakurtzea". Orokorrean "behar zena" sentitzen saiatzen nintzen, orain pozik egon behar nuke, orain triste, orain haserre... Baina benetakako emozioak azpitik zihoazten, edo dihoaz... bere kabuz adierazten dira, horiei egin nahi diet leku eta konfiantza izan, ez direla emozio on edo txarrak, baizik eta dagoen sentipenak bere mezua eman nahi duela eta gero aldatuko dela ziur aski...

Egun hauetan birusari buruzko informazio teorikoaz neka-neka eginda nago. Jada ez dakit ongi zer sinistu eta zer ez. Mota guztietako adituak ari dira bideoak egiten, audioak sortzen... Iruditzen zait gainera bakoitzak nahi duguna sinisten dugula, aurretik sinisten dugunaren arabera. Alegia, oso zientziazaleak direnak medikuen hitza sinisten



dute, konspirazio bat dagoenak horrelako mezuak sinisten dituzte... Ez ahaztu noski "nire lagun mediku, erizain edo homeopata" batek esan duenaz... Halabeharrez egunkariak bai, begiratzen ditut, baina informazio zehatza baino gehiago, beldurrezko mezuak edo esperantzazko mezuak irakurtzen ditudala iruditzen zait (bigarren hauek oraindik oso gutxi). Gogorra da niretzako informazioaren inguruko mesfidantza hau edukitzea, baina gure garaiko ezaugarrietako bat dela dirudi, denok bihurtzen gara kolpetik aditu eta iritzi emaile (burtsan aditu, birusetan, ekonomian....). Saiatzen naiz nire iritzia ahalik eta gutxien ematen, badakidalako nire sinesmenengatik eta irakurri dudan informazio

gutxiagatik baldintzatuta dagoela.

Gorputzari dagokionez, lehen ere ohitua nago etxean dezente egoten, bertan egiten dut nire lanaren zati handi bat. Hala ere, igeri egitera ezin ateratzeak, oinez ibiltzera, dantzatzera etab. gero eta gogorragoa zait. Eta oraindik denbora dezente falta da. Ea nola doan hau! Atzo ordu erdi dantzan aritu nintzen eta on egin zidan. Meditatu ere egunero meditatzen dut ordu erditxo.

Eta sentipenei dagokionez, ba bakarrik bizitzeak baditu bere onurak eta bere antsietateak. Nire erara moldatzen naiz, nire buruarekin ongi eramatea da funtsezko, eta bakardadeak bakarriketarako denbora asko uzten duenez, hor adi nola tratatzen naizen. Besteen presentzia preziatua falta dut. Nola ez, oroitu kartzelan daudenez... Gizarte esperimantu baten barruan gaudela iruditzen zait, sistemaren botere erakustaldi baten azpian edo elkartasun ariketa ikaragarri bat bizitzen... Ardi beldurtu ere sarri sentitzen naiz. Beldurra ezauzgarri nagusietako bat baita, zenbat egia eta zenbat gezurra ote... Inguruko jende jatorra beldurtuta edo historiko ikustea, gogorra izan da.

Oraindik ez naiz hasi, baina laster, honen ondoren nolako gizarte eta bizitza nahi ditudan ber-bideratzen hasiko naiz. Dirudienez, ez dago jakiterik zer heldu zaigun gizarte moduan.... Bihotzez jokatzera ezinbestekoa nire kasuan. Bihotzez mila esker bidelagun horri eta bakarrik eta elkarrekin, datorrena datorrela, aurrera!



Zabal

# Eskualdeko egunerokoa koarentenan



**Otsailean osasungintzako langileek eta hedabideetako titularrek COVID-19a izenez ezagun egin den birusa, penintsulara iristeko arriskurik ez zegoela zioten eta iritsiko balitz kaltea txikia izanen litzakeela. Martxoaren 14an ordea, Pedro Sanchezen gobernuak alarma egoera deklaratu zuen eta hala mantenduko du oraingoz, apirilaren 12ra arte.**

Martxoko bigarren astearen amaieran lehertu zen arazoa gurean. Martxoaren 13az geroztik ikasle guztiak euren etxeetan daude. Nerea Labaien (Ibarberriko zuzendaria): "Eduki guztiak online bidali behar izan dizkiegu ikasleei. Egunean eguneko jarraipena egiten saiatzen ari gara. Goizean irakasleak ariketak bidaltzen dizkiete eta goizaren bukaran berriro ikasleekin harremanetan jartzen dira. Zailtasun handiena txikiekin dugu. Adin batetik aurrera jada ohituta daudelako internet bidez lan egitera". Modu telematikoa klaseak jasotzen jarraitzen dute ere Aralar Musika Eskolako ikasleak.

Martxoaren 13az geroztik itxi-ta daude gure eskualdeko eraikin



publikoak: udaletxeak, ikastetxeak, kiroldegiak, kultur etxea, eguneko zentroa... Bertan behera gelditzen joan ziren martxoko eta apirilko kultur jarduerak eta bestelako hitzordu guztiak. Bertan behera Emakumearen Hilabeteko ekintzak, Lekunberriko Legoa, Araitz-Betelu Kantuz, hitzaldiak, bilerak...


Alerta egoerak hustu egin ditugure herrietako kaleak. Kalera lan egiteko, botikak eta elikagaiak erosteko eta osasun etxera joateko soilik irten liteke. Txakurra ateratzeko ere beharrezkoa, bada. Beldurra sortu du Koronabirusak gizartean. Supermerkatuetan zer erosi faltako denaren beldur eta etxetik ateratzeko eragozpenak masiboki kontsumitzera eraman zituen asko lehen egunetan. Gaur gurean, den-

dariet maizago bete behar dituzte apalak, baina ez da ezer falta.

Erosketak egiterako orduan ordea, ezohiko egoerak sortu dira. Dendetara sartzeko ilarak, pertsonen arteko distantziak errespetatuz. Desinfektatzailea aldiro dendarien eskuetan. Mari Tere Mugerza (Arribeko dendaria): "Dendaren barruan distantziak errespetatzeko marrak jarri ditugu. Bezeroek binaka sartu behar dute eta nik eskularruak erabili arren, bezero batetik bestera eskuak eta mahaia alkoholarekin garbitzen dut. Hasierako egunak gogorak izan ziren, ez nekielako oso ongi zein neurri hartu beharko nintuen. Ardura handia sentitzen nuen. Orain lasaia nago. Hala ere, lanak gainezka egin dit. Gehienak ez dira modu neurrigabea kontsumitzen hasi, baina lehen herriko denda erosteta egiteaz gain kanpoan ere egiten zituzten eta orain erosteta gehienak bertan egiten dituzte".

Arribeko nahiz Lekunberriko osasun etxeetako egunerokoa ere aldatu egin da. Ainara Mikeo (Lekunberri eta Larraungo Osasun Etxeko erizaina): "Aurreikusita genituen hitzordu batzuk bertan behera utzi behar izan genituen. Eta orain osasun-etxean bertan ez gara ari ia gaixorik artatzen. Kontsultak telefono bidez egiten ari gara, hona ahalik eta pertsona gutxien etor daitezen. Eman dizkiguten irizpideen arabera, bat-bateko sukar, ez-tul eta arnases-tua duten pertsonen kasuak positibotzat jotzen ditugu. Sintomak izan arren, ongi badaude etxean isolaturik egon behar dute. Okerrera egiten badute aldiz, euren etxera joaten saiatzen gara. Kasu larrietan baino ez dira ospitalera bidaltzen eta bertan egiten zaie Koronabirusa baieztatzeko proba. Hala ere, gurean oraingoz ditugu kasu guztiak arinak izaten ari dira eta ez dugu euren etxetara joan behar izan".





## Koronabirusaren istorio ttikiak



### Amaia eta Nerea Sestorain Anguera (Betelu)

**Amaia eta Nereak sei eta hiru urte dituzte eta aita, ama eta aitonarekin pasatzen ari dira egun hauek etxean. Eskuak etengabe garbitzen dabilta berriak ere. Euren amak, Ana Anguerak, kontatu digunaren arabera, oraingoz nahiko ongi daramate berrogeialdia.**

*"Martxoaren 13tik etxean daude, eskolara joan gabe. Nire senarrak lanera joaten jarraitzen du, baina gainerakook etxean sartuta gaude. Momentuz nahiko ongi ari gara moldatzen. Etxean lorategia ere badugu eta eguraldi ona egiten duen artean zenbait ordu bertan pasatzeko aprobetxatzen ari gara. Ikusiko dugu eguraldi txarra egiten hasten denean! Nire alabak Haur Hezkuntzan daude eta ikastetxetik ez digute eurentzako inolako etxeko lanik bidali. Oraingoz behintzat, nik jartzen dizkidan ariketak eta zereginak egiten dabilta.*

*Erosketak egitera ni bakarrik ateratzen naiz. Nerea asmatikoa da eta horrek pixka bat arduratzen nauen arren, lasai nago. Uste dut gripe hau iristen bazaigu ohiko gripe baten antzera pasako dugula. Dena den mundua gelditzen ari da eta iruditzen zait 2007ko krisia ezezean geldituko dela gainera datorkigunarekin."*



### Mikel Azpiroz (Errazkin)

**Beteluko ostatuko langilea.**

*"Etxean gelditzeko gobernuaren gomendioak ikusita, taberna martxoaren 14an, gure kabuz erabaki genuen ixtea. Geroztik lanik egin gabe nabil. Ni oraingoz etxean ederki nago! Etxean egotera ohitzen zara, egia da nabaritzen dela batez ere asteburuetan ezin duzula jendearekin egon, Iruñera joan edo parrandan atera, baina bestela ongi. Egunero Koronabirusari buruzko argazki, bideo eta mezu mordoa iristen zaizkit, pentsatzen dut hori ere baretzen joanen dela. Nik uste oraindik ez naizela gertatzen ari denaz ehuneko ehun kontziente. Herri txiki batean berez, ez da trafikoa handirik izaten eta horrek ere eragiten du. Baina kutsatu eta hildakoen zifrak eta albisteak ikusi arren, sentitzen dut ez naizela guztiz kontziente gertatzen ari denaren aurrean. Etxean nago, oraingoz gustura aski, oporrak etxean!"*

berezia: koronabirusa




**Lagunasesoría S.L.**

**Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**ABOKATUAK**

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## Koronabirusaren istorio ttikiak

## Mirentxu Eskamendi eta Karlos Mitxeltoarena (Betelu)

**Jokin (6 urte) eta Manex (3 urte) semeekin bizi dira.**

"Haurrak eskolara joan gabe daude eta momentuz ongi daramate. Etxean bi terraza handi dauzkagu eta eguraldi ona dugunez badute nahikoa leku korrika ibili eta nekatzeko. Eskolatik interneteko esteka batzuk bidali zizkiguten eta egunero, goizetan, zenbait ariketa egiten ditugu, marrazten ibiltzen gara, mahai-jokoetan jolasten... Eguraldi txarra egiten badugu garajea ere badugu eta badugu lekua pixka bat mugitzeko. Karlosek Beteluko lantegira lanea joaten jarraitzen du. Nik berriz Lekunberriko kiroldegian egiten dut lan, baina itxita dagoenez etxetik nabil lanean. Udalean ere zenbait ordu sartzen ditut. Jendaurreko zerbitzurik ez da ematen baina lanean jarraitu behar hor ere.

Gu bizilagunekin balkoitik balkoira hitz egiten ibiltzen gara. Jendea oraindik ez da urduritzen hasi etxean egon behar izanagatik, oraindik denbora gutxi daramagu, ikusiko dugu apirilean!".



## Battolo Tolosa eta Mari Jose Iraola (Azkarate)

**June (10 urte) eta Urko (7 urte) seme-alabekin batera daude etxean.**

**Battolo:** "Nik eraikuntzan egiten dut lan eta momentuz lanean jarraitzen dugu. Hala ere, herrian nabari da umeak etxean daudela eta ez direla plazara irteten. Hala ere, ez da hirian bizitzea bezala, hemen jardinera eta etxe ingurura ateratzeko aukera behintzat badute. Bestela herrian ez da aparteko ezer nabari, baina gaur Guardia Zibilak herri txiki hauetan ere bazebiltza bueltaka. Nik behorak dauzkat eta neguan Itzagaondoan izaten ditut baina aurki hona ekarri beharko ditugu bueltan eta ez dakit garraiatzeko arazoak izanen ote ditugun.

Gerora, uste dut krisi handia ekarriko duela honek guz-


tiak, batez ere turismoan eta ostalaritzan. Gainera, ez orain ez geunden 2007an bezain goran. Egurra hartuta geunden eta orain hau! Izugarria da!".

**Mari Jose:** "Ni Lasarteko anbulategian administrari lanetan aritzen naiz eta pixka bat kaotikoa izaten ari da. Jendea oso beldurtuta dago eta askok baja hartu nahi dute. Baina, osasunez ongi baldin bazaude, medikuek ezin dizute baja eman eta mutuak ez du hori bere gain hartzen. Horrek haserrea sortzen du jendearengan. Kontsulta gehienak telefonoz bideratzen ari gara. Gu atean gaude eta jendea iritsi ahal ikusten dugu nor pasa daitekeen eta nor doan etxera bueltan. Ar-nasketa arazoak dituela eta ongi ez bada-go etxera joan behar du pertsona horrek. Ondoren, jarraipena egiten zaio eta hiru egunetara sukarrarekin edo gaizki jarraitzen badu bi erizain joaten zaizkio etxera.

Inoiz baino kontu handiagoarekin gabilta lanean, eskularruekin eta denbora osoan eskuak garbitzen. Herrian ez da nabaritzen, baina lanean beldur gehiago pasatzen dut. Gainera, gurean erizain bat jada etxera bidali dute eta beste anbulategi batzuk dagoeneko itxi egin dituzte, beraz, irekita jarraitzen duten anbulategietara bideratzen dituzte gaixoak".







## Koronabirusaren istorio ttikiak



### Ander Prados eta Idoia Aldasoro (Betelu)

#### Ander eta Idoia Beteluko etxean ari dira pasatzen berrogeialdia

"Hementxe gaude koarentenan! Idoia irakaslea da eta etxetik dabil lanean. Ni berriz, CAFen aritzen naiz eta apirilaren 20ra arte behintzat etxera bidali gaituzte. Ekoizpen kateak martxan jarraitzeko egoera honetarako ezarri zituzten segurtasun neurriak ez ziren betetzen eta aldageletan ere oso zaila zen baldintzak betetzea, beraz gelditzea erabaki zen. Dena den uste dut zuzendaritzak hasiera batean ez zuela uste horrenbeste luzatu zitekeenik. Orain etxetik lan egin ahal izateko sistemak ezartzeko bilerak egiten gabiltza. Niri alde batetik uste dut gelditzea dela egokiena, baina gelditzekotan denok gelditzea. Alperrik da guk lan egiteari uztea eta inguruko enpresek lanean jarraitzea. Denok gelditu beharko genuke eta hutsetik hasi, baina ulertzen dut ez dela erraza. Herrian iruditzen zait jendea nahiko ongi ari dela errespetatzen jarritako neurriak. Gehienak etxean sartuta daude. Oraingoz herritarrak nahiko tenple edo umore onez ikusten ditut. Jendea kontziente da beharrezkoa dela. Iluntzetan balkoi eta leihoetan musika jartzen eta kazerolada egitera animatzen dira batzuk eta giro pixka bat sumatzen da. Baina beste bi edo hiru aste pasatzen direnean, agian denak asper-asper egin da egonen gara! [Kar, kar]. Arraroa da erosketak egitera atera eta ezin jendea naturaltasunez agurtu, distantziak mantendu egin behar dira. Baina ez dut beldurrik sentitzen ateratzen naizenean. Gainera, ez da zabaldu Betelun edo Araitzen Koronabirus kasurik eman denik eta horrek lasaitasun puntu bat ere ematen du".



### Rosi Gaztelumendi (Azkarate)

#### Amavir Beteluko langileen ordezkaria.

"Egoitzan ditugun adinekoek ezin dute kanpora irten eta euren senideek ere ezin dute bisitan etorri. Bilerak egiten gabiltza, kasuren batean positiboren bat emango balitz zein protokolo jarraitu behar dugun jakiteko. Eskularruak beti erabili izan ditugu, baina orain ahozapiak ere erabili behar ditugu. Hasieran oso ahozapi gutxi genituen eta Madrildik esan ziguten Koronabirus kasurik ez bagenuen ez erabiltzeko, bestela ahozapirik gabe geldituko ginela. Orain ekarri dizkigute gehiago.

Egia esan beldur gara. Tolosaldera iritsi da eta ez daki gu geu gaixotuz gero zer pasa litekeen.

Gure kasuan, egoitzako zuzendariak Gobernuak baino astebete lehenago hartu zituen Koronabirusaren kontrako neurriak. Astebete lehenago hasi ginen protokoloa betetzen. Hori gure alde dugu. Nabarmenezkoa da egoitzako langileek egiten ari diren lana ere. Garbiketan dabilzan langileek lehen ere egoitza desinfektatzen zuten, baina orain neurriak askoz gogorragoak dira. Eta zaintzan dabilzan langileak ahalegin izugarria egiten ari dira aitona-amonekin. Ezin dituzte euren senideen bisitak jaso eta langile guztiok eurei animoak ematen gabiltza, psikologikoki laguntzen, eurengandik inoiz baino gertuago egoten. Eurek ulertzen dute egoera eta senideek aldetik ere ez dugu arazorik izan, ulertzen dute neurri horiek beharrezkoak direla. Gaur gaurkoz ez dugu kasu positiborik egoitzan. Zortea dugu!".

Bidaliezaguzu Koronabirusaren zure istorio ttikia eta eta argazkia [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara edo 638 652 339 zenbakiaren bitartez.




## Zer egin dezakezu Koronabirusa ez zabaltzeko?

**Ez zaitetz etxetik atera.** Erosketak egitera atera behar baduzu, saia zaitetz ahalik eta gutxien ateratzen. Astean behin ateratzea nahikoa izan liteke. Kontuan hartu oso birus kutsakorra dela eta arriskuan jartzen duzula zure osasuna eta ingurukoena, bereziki 65 urte baino gehiago dituztenena.

**Eskuak maiz garbitu.** Ur eta xaboiarekin.

**Aurpegia ahalik eta gutxien ukitu,** batez ere eskuak garbitu aurretik.

**Zer egin sintomak badituzu?** Sukarra, eztula, arnasteko zailtasunak... Gelditu zaitetz etxean eta deitu ezazu zure osasun etxera: 948 513 040 (Arribe) / 948 504 208 (Lekunberri).



## Laguntza behar duzu?

**Erosketak egiteko, zaborra jaisteko edo bestelako arazoren bat baduzu, horra hor eskura dituzun laguntza zerbitzuak.**

**Zuk zeuk edo zure senideren batek laguntza behar badu:**

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzua: 948 600 694.

Lekunberriko Udalak herritarren eskura jarritako **laguntza zerbitzua:** 621 277 456.

**Larraun Elkartasun Sarea** 634 418 177 / 673 487 088/  
[larraunelkartasunsarea@gmail.com](mailto:larraunelkartasunsarea@gmail.com)


**Antsietatea, larritasuna edo laguntza emozionala beha duzula sentitzen baduzu:**

Nafarroako Gobernuak laguntza psikologikoa eskaintzen du 848 420 090.

**Nagusilanez "Zilarrezko Haria" doako telefono bidezko zerbitzua indartu du.** Solasaldi atsegin batekin lagundu nahi zaie bakardadean aurkitzen diren adineko pertsonen.

Harremanetarako: 900 713 771 / 688 741 451.

Lekunberriko Udalak jarritako **psikologia zerbitzua** (astearte eta ostegunetan 10:00-12:00) 654 80 58 42.



**Beste zalantzaren bat** baduzu jarri harremanetan Osasun Kontseiluaren telefonoarekin: 948 290 290.



Araoak ezustean hartu gaitu eta kaosa sortu du, osasungintza batez ere. Horren aurrean laguntza sareak sortzen ari dira gurean. Bestak beste, Larraungo eta Lekunberriko Jostunen Taldeko kideak oihalezko ahozapi berrerabilgarriak egiten hasi dira osasungintzako langileei eta beharra dutenei bidaltzeko. Eguneko Zentroan goizez kotoizko maindire eta oihalak jasotzen ari dira. Garbitu eta moztu ondoren herritarrek 11:30etatik 13:15ak bitarte ahozapiak egiteko materiala jaso dezakete norberak bere etxean josteko. Dagoeneko 30 pertsona ari dira ahozapiak josten.



**ekin**  
rotulación  
948 85 32 79

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



## ESKUALDEA



Herritar ugari ere Araitzko udaletxe aurrean. Arg: Maider Agirrebarrena.

## Jarraipen handia izan du M8ak eskualdean

Joan den martxoaren 8an, hainbat manifestaldi eta elkarretaratze egin ziren gurean Emakume Langileen Nazioarteko Eguna dela eta. Urtetik urtera jende gehiago mugiarazten duen egun horretan. 50 lagun inguru elkartu ziren Arribetik Beteluraino trikitilariekin batera egindako manifestaldian. Eta inoiz baino jendetsuagoa izan zen ere Larraungo Berdintasun Mahaiaik bazten dituen eragileek deitutako manifestaldia. Aurten, kirolean emakumeek beharko luketen ikusgarritasuna nabarmendu nahi izan zuten eta manifestaldiaren aurretik nesken futbol eta pala partidak jokatu ziren. Eguerdian berriz, bisita berezia egin zuten hainbat lagunak Mendukilora. Egitarau zabala antolaturik zuen Larraungo Berdintasun Mahaiaik hilabete osorako. Baina Koronabirusa dela eta bertan behera gelditu zen.



Lekunberri egin zen manifestaldi jendetsua. Arg: Labrit.



## EUSKAL HERRIA

## 2020ko euskarazko udalekuen eskaintza



Lehen Hezkuntzako nahiz DBHko ikasleentzako euskarazko udalekuen bilduma kaleratu du Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. 2020rako eskaintza zabala dago Euskal Herrian. Ur ekintzak egiteko udalekuak, bertsolaritza lantzeko udalekuak, kirola egiteko, baratza egiteko, dantza egiteko... Denak euskaraz. Izen emateko epeak dagoeneko irekita daude, beraz ez galdu aukera. Informa zaitez udaleku hauetarako eskaintzen diren diru-laguntzei buruz zure Euskara Zerbitzuan ([larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus) / 948 504 400).

Euskarazko udalekuen bilduma hemen duzu eskuragarri:

<https://mailope.eus/2020/03/24/2020ko-euskarazko-udalekuen-eskaintza/>





GAINTZA

# 70 lagun elkartu ziren Gaintzako ihoteetako afarian

Festekin gertatu ohi den moduan, Gaintza izan zen eskualdeko ihote denboraldia agurtzen azkena. Joan den marxoaren 7an ospatu zituzten. Badira hogei urte gaintzatarrek herriko inauteriak berreskuratu zituztela. Goizean baserri baserri ibili ziren, ume, gazte zein helduak puska-biltzan. Denak mozorroturik. Eta goiz partean euri jasen bat edo beste izan bazuten ere, trikitilarien doinuekin dantzan ibili ziren. Iluntzean urteroko afaria egin zuten Sonbelu elkar-tean. 70 lagun elkartu ziren, bertakoak nahiz kanpokoak. Postrean, txalo artean zoriondu zituzten Izaskun Ezkurdia eta Martin Estanga. 42 urte dira Gaintzako bikotea hau ezkondu zela. Zorionak!!

Horra hor aurten Gaintzan, Agustin Saralegiren eskutik jasotako hainbat irudi!



**Bar Ainhoa**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
 948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte  
 ARIBONDO  
**HARATEGIA**  
 Aralar kalea 9  
 Lekunberri  
 948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
 948 50 43 31  
 Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
 Betelu 31890  
 948 513 083  
 696 732 290  
 aitzberri@hotmail.com








# Lehen sektoretik inoiz baino gertuago

*Joan den martxoaren 10ean, Larraungo Udalak lehen sektorea indartzeko Cederna Garalur Elkartearekin batera abiatutako prozesuaren baitan, ibarreko errealitatea ezagutzeko lehen diagnostikoaren aurkezpena egin zuen. Lekunberri, Araitz, Imotz, Basaburua, Atetz, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranorekin batera, guztira hamar dira joan den udaberrian Cedernarekin lehen sektorea, produktuen transformazioa eta komertzializazioa sustatzeko hitzarmena sinatu zuten udalak.*

Lehen sektoreak elikagaiak emateaz gainera eragin handia du gure inguruan. Arg: J.A. Garaikoetxea



Udalerrri bakoitzak bere errealitatea bizi duen arren, hainbat ezaugarri eta batez ere lehen sektorea bultzatzeko hainbat zailtasun komun dituzte eta prozesu honekin indarrak eta baliabideak batu nahi dira.

Amaiur Unzueta elikadura eta dinamizatzaile teknikaria arduratu zen Larraunen egindako diagnostikoaren aurkezpenaz: "Proiektu honetara batu diren udalei eta Cedernako teknikarior iruditzen zaigu apustu bat egin behar dela lehen sektorea bultzatzeko. Lehen sektoreak elikagaiak emateaz gainera, hautatzen dugun ereduaren arabera, eragin handia duelako gure inguruan. Gure osasuna eta paisaia zaintzea ahalbidetzen digu. Bertan bizi nahi dugunok bertan lan eta bizitzea ahalbidetzen digu".

Larraunen egindako bileran ateratako ondorioen artean, zuzeneko salmenta indartzearen beharra nabarmendu zen. Baina horretarako ezinbesteko bihurtzen da lehenik, ekoizleak identifikatu eta ekoizpena katalogatzea eta ekoizleek dituzten transformaziorako zailtasun nahiz oztopo komertzial eta legalak aztertu eta konpontzea. Asko ez izan arren, hainbat herritar eta ekoizlek parte hartu zuten bileran eta lehen lanildoak zehaztu zituzten eta datozen hilabeteetan talde gisa lehen pausoak emateari ekingo diote.

Bestalde, Araizko Udalak martxoaren 28rako zuen aurreikusia lehen sektorearen gaineko aurkezpena. Baina alerta egoerak behartuta bertan behera gelditu zen. Beraz,



egoerak onera egiten duenean data berria jakinaraziko da.

### **BASERRIKOPLAZA.EUS ATARIA: BASERRITARREN ELIKAGAIAK HERRITARREN ESKURA**

Martxoaren erdialdean eskualdeko hainbat udal lehen sektorea bultzatzeko ahaleginetan zebiltzala iritsi zen Koronabirusa denon egunerokora. Munduko ekonomia dantzan jarri du eta oraindik ezin jakin zein ondorio izanen dituen gizartearen sektore ezberdinetan. Baina jakina da, osasungintzarekin batera, egun batetik bestera gizartearentzat inoiz baino garrantzitsuago bilakatu dela lehen sektorea. Muturreko egoera honetan askok ohartu baitira bizitzeko gizakiok behar dugun gauza ezinbesteko bat dugula janaria. Eta zenbateko garrantzia duen egunero oharkabean kontsumitzen ditugun elikagai horiek.

Gaur, pertsonak kontzientzia hartzen hasia dira, supermerkatuetan janaria faltatzen hasiko denaren beldur dira. Zurrunbilo honen erdian, lehen sektoreko ekoizle gehienek lanean jarraitzen dute. Eta euren elikagaiak herritarrei eskaintzeko aukera ezin hobea bihur liteke. Hala uste dute EH Kolektiboko kideek. Alerta egoeraren erdian proiektu berri bat jaio da, [www.baserrikoplaza.eus](http://www.baserrikoplaza.eus).

Web-orri horren bitartez baserritar eta ekoizle txikiak euren elikagaiak saldu ahalko dituzte. Bertako elikagaiak bertako herritarrentzat. Logistika sinpleak garatzen ari dira



Larraunen lehen sektorea sustatzeko talde eragilea sortu da. Arg: Labrit.



# **BASERRIKO PLAZA**.eus



Baserrikoplaza.eus atarian baserritarren elikagaiak zure eskura.

eskualdeko banaketa zerbitzua aurrera eramateko.

Baserritarra edo ekoizle txikia bazara eta zure ekoizpena herritarrei eskaini nahi badiezu jarri harremanetan: [baserrikoplaza@gmail.com](mailto:baserrikoplaza@gmail.com) 688 677 020.



# Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

## Aonatu

*Aonatu ittea pertsona bat gauze onak itten dittonean; aonatu ittea asmo ta jokaera onak dauzkenean, launkoie denean o besteentzako ona besteik ez daukenean. Aonoak jasotze'tto pertsona horrek; aonoak, hitz polittek, loreak, ona besteik ez zaio opa.*

*Asko dakienak eskreittutako hiztegin beittuta abonatu litzeke guk ahotan daikiun aonatu, eta abonu, berriz, aonoa. Nik eztaikit asko baño erdaazko abonar hitzetik etorriko deelakoan nao. Lurre ongarritzea litzeke abonar. On-garrie, oain zakutan eosten dena eta lehen karretilleka-karretilleka itten zen pille. Ta jatorrin hondakin bera izanda re, ez ta berdiñe ongarritzea ta kakaztea. Berdiñe ezten bezalaxe aonatzea ta adornatzea. Ongarrittu ditteke positiboan, hitzekin, pentsamentukin, jarrerakin, asmoakin o proiektukin. Ta kakaztu ditteke berdin-berdin, hitzekin, pentsamentukin, jarrerakin, asmoakin o estrategiak, baño negatiboan.*

*Ta gauze bera pasatzen da aonatzeakin ta adornatzeakin. Aonatzea da, norbatti gauze onak esatea, estimatzea, laun hurkoak ta ez hain hurkoak itten duen hoi ontzat hartzea; eredugarrie, baliotsue, laungarrie dena aitortzea. Obi mamie. Adornatzea da, berriz, aurpeie makillatzea, zikin-estalin ibiltzea, den bezalakoa ez eakusteko beste apaingarrietzuk jartzea, itxuroso antxean azaltzeko lore'atzuk botatzea. Obien azala.*

*Azal da mami, dena da obi, baño askotan zalle'a azala ta mamie biixtea, dena zaigulako gustagarri o dena itten zaigulako pixu. Aono askok beste hainbeste izaten due adornotik eta itxuren itsutasun hortatik saiatzen gea proatzen mamie: "Eztauke itxure earra baño asko aonatzen due ta ez ta txarra izango!"; "jarrera horrekin ez tin pertsona izuarri ematen baño askok aonatzen diñe ta ezton horren zittala izango". Zenbat aono eta zenbat adorno!*

*Begikin jate omen da aurrena ta harremanak re itxurek, aurrejuzguk, esamesak o etiketak erainda lantzeko berezko joera bado pertsonak. Azaleko harremanak. Baño ez giñuke ahaztu behar mamie babesteko izateala azala; belarrik aitzeko, begik ikusteko, burue pentsatzeko ta bihotza sentitzeko deen bezala. Azal ta mami, adorno ta aono.*



# emozioen munduan



●● Lorea Zulet (Psikologoa)

## Bakardadea

Batzuetan beharrezkoa, besteetan tristeza, askotan beldurgarria. Hiztegiak bakartasunarekin erlazionatzen du hitza, bakarrik dagoen edo egon ohi den pertsonaren egoera.

Askotan zerbait negatiboarekin erlazionatzen dugu. Nork ez du entzun bakarrik egon nahi duenean: Gaizki zaude? Zerk kezkatzen zaitu? Baina, bestalde, nork ez du desiratu bakarrik paseo bat ematea, lasai-lasai liburu bat irakurtzea, edo terrazan eserita musika entzutea? Dena den, hor dago gakoa, bi bakardade kontzeptuen ezberdintasunean.

Tarteka, bakardade "negatibo" horrek berarekin dakartza barne mamuak. Bakarrik geratzen hauek indarrez sartzen dira gure buruan, gure buruaz gustatzen ez zaizkigun gauzetan, oroitzapen ilunetan edo gure gabezia eta lotsagarrikerietan pentsarazten. Agian horregatik gaintzekoei beldurra ematen die ere gu bakarrik ikusteak, beraiei oldartzen zaizkien mamuak imajinatzen dituztelako. Mamu horiek oso zaratsuak

izan daitezke inguruko isiltasunarekin konparatzean, horregatik bakarrik bazkaltzea tokatzen zaigunean, adibide bat jartzearen, gutako askok eta askok musika edo serie bat jartzen dugu. Ez hortaz disfrutatzeagatik, baizik eta mamuak isilarazteko.

Baina ezin da dena hain iluna izan! Berri ona da mamu hauei aurre egin diezaioketula! Aurre egin behar harko diegu eta beraiekin elkarbizitzen ikasi, gure izaeraren zati dira hain zuzen ere.

Eta elkarbizitza horretan ikaragarria da zure baitan, egotea. Inguruaz deskonektatu zurekin konektatzeko. Iristen da momentu bat non eguneko une hori bilatzen duzun. Bilatutako bakardadea. Ingelesek kontzeptu horretarako hitz bat daukate: "solitude", ezagunago egin daitekeen "loneliness" hitzarekin kontrajarriz. Bigarren honek, lehen komentatutako kutsu negatiboa izan ohi du.

Barne mamu hauek onartzeak bakardadea gozatzea eta hainbat momentutan bilatzera eramaten



gaitu, eta hori oso ongi dago, baina ez dugu ahaztu behar gizakia izaki sozial bat dela. Honek esan nahi du beharrezkoa dugula gure osasunerako beste pertsonarekin erlazionatzea, gure adina edo egoera edozein izanda. Gakoa izango da gainerakoekin ditugun erlazioak onuragarriak eta kalitatezkoak izatea bai guretzat eta bai gainontzekoentzat ere. Eta oinarritzko baldintza hauek betetzen ez baditu, lehenbailehen aldatu.

Honekin erlazionatuta, hurrengo artikuluan erlazio toxikoei buruz hitz egingo dugu, ez galdu!

*Zure zalantza pertsonalak Lorearekin argitu nahi dituzu?*

*Jarri harremanetan:*

*lzt.psicologia@gmail.com / 676 975 810.*

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK.  
KOPA BERGIZAK

948504352

GUNDU MAILA  
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefona: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarrapun@gmail.com



## Mendialdeko eskuz binakako txapelkunak

Martxoaren bigarren asteburuan jokatu ziren Mendialdeko Eskuz Binakako Pilota Txapelketako finalak. Ostiralean, Goizuetan, bigarren mailako kimuen artekoa finala jokatu eta gero. Kadeteen mailan Umore Onako Elizegik eta Aurrerako Mateorenak 22 eta 19 irabazi zieten Larraungo Lucas Navarro eta Aimar Goldarazinari. Eta 22 urtez azpikoetan jokatutako buruz burukoan ere Larraun galtzen atera zen, Umore Onako Aitor Aizkorbek 22 eta 16 irabazi baitzion Iñaki Galarzari.

Larunbatean, Lekunberrin jokatutako jardunaldian, etxekoan artean aritu ziren gehien bat. Bigarren mailako benjaminetan Alex Azpirozek eta Bikendi Legarrak (18-10) irabazi zuten finala. Lehen mailako benjaminetan, Araxesko Eñaut Satrustegik eta Imanol Sotilek (18-12). Hirugarren mailako kimuetan Larraungo Julen Bildarraz eta Egoitz Larreta (18-11) izan ziren txapelkunak. Eta gazteen mailan, Larraungo A. Saralegik eta Hodei Ijurkok 22 eta 15 irabazi zieten Aurrera-Tolosako M. Saralegi eta Larraungo Ander Iriarteri.



Igandean, Leitzaun jokatu ziren azken finalak. Lehen mailako kimuetan, Aurrerako Telletxeak eta Larraungo Alai Olletak 18-7 irabazi zieten Aurrerako Erdozia eta Larraungo Egoi Ijurkori. Bigarren mailako haurren mailan, Lizarraga eta Baleztena izan ziren txapelkunak (18-17). Eta lehen mailako finala Umore Onako Legarretak eta Aurrerako Sagastibeltzak 18 eta 17 irabazi zieten Aurrerako Dorronsoro eta Larraungo Endika Galartzari.

Mendialdeko pilota elkarteek elkarlanean antolatutako lehen edizioa izan da hau eta oso balorazio positiboa egin dute.

## Lekunberrinko Legua bertan behera gelditu da

Martxoak 22an zen egiteko Lekunberrinko Legua, baina Kirol Mankomunitateak bertan behera utzi zuen alerta egoera dela eta. 32. edizioa zen aurtengoa eta ibilbide berriarekin zetorren gainera. Ikusiko da aurtent berreskuratzetik ote dagoen edo datorren urtera arte itxoin beharko dugun.

## Hasiera bikaina Nafarroako Kirol Jokoetan



Martxoaren 8an eman zioten hasiera Nafarroako Kirol Jokoetako Herri Kirol Txapelketari. Berriozarren jokatutako lehen saio horretan Araxes taldeak bi mailetan lehen postua eskuratu zuen. Kimuen mailan Araxesko kirolariarekin osatutako bi talde aurkeztu ziren. Bata lehen postuan sailkatu zen eta bigarrena 17.ean. Kadeteen mailan talde bakarrarekin aritu ziren eta proba konbinaden proban hauek ere irabazle. Ez ziren horren ongi moldatu sokatiran, azkenak gelditu baitziren. Oso hasiera ona izan zuten arren, oraingo behintzat hauek ezin txapelketarekin aurrera egin.



## Azkaratetik Azkaratera



Euskal Herrian badira Azkarate bat baino gehiago. Gurean bakarra dugu, Araitz bailaran, baina esan bezala baditugu gehiago ere. Beste Azkarate bat Nafarroaren Iparraldean dago, Nafarroa Beherean, Donibane Garaizitik pare bat kilometrotara. Azken datuen arabera, 317 biztanle ditu eta 6 kilometro karratuko azalera.

Urtarrilean, Iparraldeko Azkarateko Jean Michel Galant auzapeza, Araizko Azkarateko alkatea den Andoni Tolosarekin harremanetan jarri zen. Ba omen ziren han zenbait herritar, hau da, zenbait azkaratear, gustura bisitatuko luketenak Araizko Azkarate. Hemen, gustura hartuko litzuketela esan zion Andonik eta has zitezkeela bidaia prestatzen.

Jean Michel eta Azkarateko bere lagunak mendian ibiltzen ohituak dira, eta bidaia oinez egitea pentsatu zuten, mendiz mendi. Hobe zen lau egunetan egitea baina Mattinek (haientzat nagusia denak) buruan sartua zuen hiru egunetan egin behar zutela. Horrela, lehen egunean, Iparraldeko Azkaratetik atera eta Iruritaraino, bigarrenegun Iruritatik Ezkurarraino eta hirugarrenean, Ezkurratik Azkarateraino. Guztira ia 100 kilometro eta 25 ordu baino gehiago.

Martxoaren 8an, goizeko zazpitan, Jean Michel eta bere lau lagun azkaratearrak Ezkurratik atera eta Leitzan hamarretakoa egin ondoren,

Peru-Harrin geldialdixoa egin zuten Iñaki Peurenarekin. Eguerdia pasa zenean Guratz tontorrean ziren. Han elkartu ziren Andonirekin, bidera atera baitzitzairen. Gorrititik barna Arribe-Atallura jaitsi eta, arratsaldeko hiruak inguruan Azkaratera iritsi ziren.

Ordurako hainbat kotxetan iritsiak ziren Iparraldeko Azkarateko beste zenbait lagun eta, bertako azkaratearrek harrera egin eta Balerdi elkartearen bazkari ederra egin zuten elkarrekin. Hogeita bost lagun inguru

elkartu ziren, azkaratearrak guztiak, hangoak eta hemengoak.

Produktuak elkartrukatu ere egin zituzten, hango ardoa, sagardoa, gazta eta hemengo gazta eta esnekiak. Eta nola ez, orain itzulera egitekotan geratu dira. Hemengo Azkaratekoak, hango Azkaratera joateko asmoa eta gogoa dute. Oraindik erabakitzeke dute nola, oinez, bizikletaz, kotxez... auskalo eta, noiz. Bizi ditugunak ikusita hori ere auskalo, momentuz behintzat ez!



Andoni Tolosa alkatea bidera irten zitzairen. Arg: A. Tolosa.



# Entitateetan euskaraz aritzeko guneak sortuko ditu Euskaraldiaren II. edizioak

Badator Euskaraldiaren bigarren edizioa. 2018. urte amaieran "11 egun euskaraz" egin genuen, baina oraingo honetan erronka handiago bat proposatzen du Euskaraldiak. Norbanakoak ez ezik, entitateak ere inplikaturik baitira hizkuntza praktika berriak bultzatzen. "Eremu antolatu eta finkoak diren heinean, bertako kide guztiei zuzenean eragiten diete hizkuntzaren esparruan bertan hartutako erabakiek, baita ingurukoei ere, zeharka. Gainera, entitateei eremu horiek babesteko eta sustatzeko konpromisoa eskatuko zaie eta, epe luzerako helburuez ari garenez, ariketa amaitzean hizkuntza ohiturak aldatzeko hartutako urratsak egonkortzeko gonbita egingo zaie".

2020ko Euskaraldia hamabost egunez luzatuko da eta entitateek euskaraz mintzatzeko gai diren hiztun taldeak identifikatu beharko dituzte: ARIGUNEAK. Beraz, taldean ere hizkuntza ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko ariketa egin ahal izango dute.

ARIGUNEAK euskaraz lasai aritzeko guneak dira, bertako kide guztiek

## AHOBIZI:

*"Euskaraz ulertzen duten guztiak euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean".*

## BELARRIPREST:

*"Nire gaitasun eta aukeren arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiak, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan".*

euskara ulertu eta denek edo gehienek ariketa taldean egitea erabaki baitute. Entitatearen funtzionamenduan dagoeneko erabakia dauden taldeak edo espazioak dira, eta hizkuntza-praktikak euskarara aldatzea edo finkatzea dute helburu. Bi motatakoak izan daitezke:

**Barne-ariguneak:** ohiko funtzionamendurako taldeak dira (sailak, zerbitzuak, kirol-taldeak, lan-taldeak, asanbladak...) eta bertako kide guztiek euskara ulertzeaz gain, kideen %80 gutxienez Ahobizi edo Belarriprest modura ariketan parte hartzeko prest dago.

**Kanpo-ariguneak:** entitatean herritarrekiko harreman espaziotan (harreran, telefonoan, kutxetan, barran...) dauden pertsonen herritarrekiko osatutako arigunea da. Espazio horietan beti egongo da belarriprest edo ahobizi den kide bat, gutxienez, herritarren hizkuntza aukera bermatzeko. Entitateko kideek ahobizi edo belarriprest moduan hartuko dute parte ariketan. Horietako batzuk ariguneetan egongo dira eta beste batzuk ez.

Mota guztietako entitateek parte hartu ahaliko dute: erakunde publikoek, gizarte eragileek, enpresek, kooperatibek, kultur eta kirol taldeek... Baina proposatutako ariketa egin ahal izateko, gutxienez, barne-arigune edota kanpo-arigune bat izatea bermatu behar dute. Arigunerik ez duten entitateek beste galdetegi batean emango dute izena, hala, kideen prestaketa egin eta aurrerapausoak emateko jarraibideak jasoko dituzte, eta norbanakoen ariketa sustatu eta Ariguneak sortzeko neurriak hartzeko gonbidapena egingo zaie.

Bestalde, herritarrek lehenengo edizioan proposatutako ariketari eutsiko diote, Ahobizi edo Belarriprest izan.







## Eman izena zure entitateko Arigunea bermatzeko!

Entitateek Euskaraldian parte hartzea adosten badute, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) atariaren bitartez izena eman beharko dute 2020ko uztailearen 31 baino lehen. Behin izena emanda, Euskaraldiko antolatzaileak entitatearen arduradunarekin harremanetan jarriko dira prozesua nola burutuko den jakinarazteko.

Gure eskualdean ere dagoeneko osatu dira Euskaraldirako lan-taldeak, eta horien bidez informazio gehiago eskuratu dezakezue. Harremanetarako: [larbeleareuskaraz@iparmank.eus](mailto:larbeleareuskaraz@iparmank.eus) / 948 504 400.



*"Mota guztietako entitateek parte hartu ahalko dute"*

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
**LEKUNBERRI**

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA DENTRAL HORTZ KLINIKA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zokia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zokia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**WWW.ERA.EUS PLATAFORMAK EUSKARAZKO KULTUR PROPOSAMENAK ESKAINIKO DITU EGUNERO**

Etxe txikiak etxean ikasten dabilzan honetan, inoiz baino tresna interesgarriagoa izan liteke [www.era.eus](http://www.era.eus) ataria. Nafarroako toki-entitateetako 28 eskara zerbitzuek elkarlanean sortutako webgune honek, euskaraz ikasten duten 0-12 urte bitarteko haurren familiei laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkie ikas-prozesua osatzen laguntzeko. Guraso askok euren seme-alabentzako euskarazko produktuen falta sumatzen zutela ikusita eta eskari horri erantzunez sortu zen plataforma digitala.

Bertan, euskarazko musika, jolasak, aplikazioak, ipuinak, ikastaroak, agenda eta beste hainbat eduki interesgarri topatu ditzakezu. Baina horrez gain, aurkitzen garen ezohiko egoera honetan, Era.eus atariak egunero euskarazko kultur proposamen berri bat eskainiko du bere webgunean zein sare sozialetan. "Eguneko kultur proposamena" izeneko atalean, egunero ipuin, musika, antzerki edo bestelako ikuskizunen baten berri emanen da. Gainera, "Eguneko kultur proposamenak etxeraino" izenpean, ikuskizunak orduka eta jarduerak sailkaturik saio ezberdinak aurkituko dituzu. 10:00ak aldera Euskalerrria Irratiak emitituko duen "Etxeko ipuhinak" izanen da eta arratsaldeko 16:00etan ipuinak, musika eta marrazketarako ordua eskainiko dute Irribarrez webgunean. Denetarik egiteko aukera izanen da, baita dantza eta kirola egiteko ere.



**Antzonia**  
BASERRIKO GAZTA

948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUK  
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA**

**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**Antigüedades Gastón**

ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174  
ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com  
ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrarekin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurria egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.  
Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaaren alboan)  
31892 Sarasa.

**urrutia**  
enea

etxe hestekiak  
**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia  
**GALBURUeco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42



## #MailoperekinEtxean



## Parteka itzazu gurekin Koronabirusaren zure istorio ttikiak

Bizitzen ari garen egoera berezi honetan, Mailopeko ale hau kaleratzea lortu dugu bereziki inprentako langileen eta postarien ahaleginari esker. Datorrena ere aurki izanen duzue esku artean, baina bien bitartean, Koronabirusa dela eta etxean sartuta zauden egun hauetan bizitako momentuak gurekin konpartitzea gustatuko litzai-guke. Bidai iezaguzu zure istorio ttikia eta argazkia eta Mailope Aldizkariaren Facebook orrialdean partekatuko dugu!

*mailope@labrit.net*  
638 652 339

*Gera zaitetz etxean!*

### LAN-ESKAITZA

Aizarozko ostatua kudeatzeko eskaera epea zabaldu du Basaburuko Udalak. Interesa izanez gero jarri harremanetan: 948 503 035.

### LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

### SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).



### EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

MERAKTU TXIKIA

**TAXILON**

Lontxo  
Otamendi  
Artola

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com




EMAN DIEZAI OGUN

# Kolore pixka bat

EGUN HAUEI!

*Zein animalia ezkututzen  
dute zenbaki  
hauek?*



*Eskualdeko herrien izenak  
ezkutatu ditugu hizki zopa  
honetan. Guztira, 15.  
Aurkitzeko gai izanen  
zara?*

- GORRITI
- UITZI
- ERRAZKIN
- LEZAETA
- AZPIROTZ
- ALBIASU
- ODERITZ
- ASTITZ
- GAINTZA
- ARRIBE
- BETELU
- LEKUNBERRI
- IRIBAS
- AZKARATE
- UZTEGI

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | L | B | I | A | S | U | S | R | I | R | I | B | A | S |
| P | A | B | O | C | I | P | L | R | N | L | D | R | S | G |
| R | R | E | N | L | Z | R | I | S | O | A | Z | Z | K | O |
| B | E | T | E | L | U | I | S | R | E | T | T | A | M | R |
| A | R | R | I | B | E | E | A | I | I | O | J | L | E | R |
| U | L | E | K | U | N | B | E | R | R | I | Z | I | L | I |
| E | I | S | E | E | D | A | E | I | N | D | Z | E | A | T |
| L | R | O | I | O | Z | D | P | I | U | T | I | E | O | I |
| L | Z | R | E | R | O | Z | B | G | I | Z | T | A | D | U |
| A | E | P | A | U | A | P | D | U | A | A | T | Z | B | C |
| E | O | Z | I | Z | T | R | Z | Z | R | I | T | E | T | T |
| E | O | N | A | E | K | L | A | A | D | I | N | A | G | I |
| N | A | R | M | E | D | I | K | A | T | E | T | T | K | I |
| R | R | I | E | I | T | Z | N | S | T | N | R | A | Z | N |
| N | D | I | E | J | A | A | A | B | O | V | C | S | D | A |